

itsasondo2.0

herriko aldizkaria 62. zk (martxoa 2026)

Aiuri Sodupe Plazaola



▼ Kultur agenda
2026

▼ Etxebizitza azterketak
eman dituen ondorioak

▼ Haur kontseilua
martxan

03	Udaleko berriak
04	Haurreskola
05	Eskola
06	Guraso elkarteak
07-10	Gazteria
11	Motzean: Nellyn Garcia Perez
12-13	Etxebizitza
14	Hitzar
15	Natura
16-19	Elkarrizketa: Aiuri Sodupe Plazaola
20-22	Kultura
23	Ongizate
24-25	Hemeroteka
26	Liburutegia / Errezeta
27	Euskara
28	Agenda

Sarrerako bertsoak

Doinua: *goizean goiz jeikirik*

Zuberoar herriak
a ze maskaradak,
hauek jartzen dituzte
pozik herritarrek
laralai lala laralai lala...

Hango inauteriak
daukate magia,
herriari ematen
diote bizia
laralai lala laralai lala...

Ikusiko ditugu
beltzak ta gorriak,
musikariak ere
baita dantzariak
laralai lala laralai lala...

Garrantzi kulturala
dute maskaradak,
Euskal Herri guztiak
doaz ikusleak
laralai lala laralai lala...



Kaixo, herritar eta irakurle.

Eskuan duzuen ale honekin batera, Itsasondoko aldizkariak beste behin gure herriaren taupada jaso eta partekatzeko asmoari eusten dio. Ez da hasiera erraza, ordea. Aurtengo negua luzea eta gogorra izan da, bai eguraldiari dagokionez, bai sentimenduen aldetik ere. Bidean, gure lankide maitea galdu dugu: **Joxe Luis Aranburu**. Hitz gutxitan laburtzea zaila da urte hauetan guztietan gure artean egin duen ekarpena, beti irribarrea eta jarrera ona agertuz.

Baina bizitzak ez du etenik, egunak luzatzen hasi dira, argiak gero eta tarte handiagoa hartzen du, eta udaberria badator pixkanaka. Ale honetan askotariko gaiak jorratu ditugu. Besteak beste, gizarteak kezkatzen duen etxebizitzaren auzia landu dugu. **Itsasondo** ez da salbuespena: alde batetik, etxebizitza eskasia nabaria da, eta bestetik, dauden etxebizitza askok ez dituzte irisgarritasun baldintza egokiak betetzen. Udalak gai horren inguruan martxan jarritako lanketaren berri ere jasoko duzue, arronka handia baita, baina ezinbestekoa herri bizi eta inklusibo bat eraikitzeko.

Iturri Txiki guraso elkarteak Agarre baserri ingurutik egindako mendi bueltak aukera eman die haurrei naturarekin harreman zuzena izateko, ingurunea ezagutzeko eta errespetatzeko. Neguak etxerako eta goxotasunerako joera ematen badu ere, azken hilabeteetako herriko agenda begiratzea nahikoa da konturatzeko Itsasondon gauza ugari egin direla. Ekitaldi, jarduera eta topaketa askok bete dute egunerokoa. Kultur arloan, bereziki, 2025ean egindako ekintzen inguruko galdeketa emaitzak jaso ditugu, herritarren iritzia eta ekarpenak oinarri hartuta etorkizuneko bidea marrazteko.

Azkenik, elkarrizketa luzearen atalean, Aiuri Sodupe gazte itsasondoarrarekin izandako solasaldiak gimnasia artistikoaren mundura eramango gaitu. Bere esperientziaren bidez, diziplina horren atzean dagoen esfortzua, dedikazioa eta ilusioa eza- gutzeko aukera izango dugu.

Espero dugu ale hau lagungarri izatea gure herria hobeto ulertzeko, sentitzeko eta elkarrekin aurrera egiten jarraitzeko. Mila esker irakurtzeagatik, eta denon artean herria egiten jarraitzeagatik.

Udaleko azken albisteak

Azken hilabeteetan egindako udalbatzetan hainbat erabaki garrantzitsu hartu dira, herritarren ongizatea eta udalerriaren garapena helburu hartuta. Hona nagusiak:

AIde batetik, Itsasondoko Udalaren eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena onartu da. Hitzarmen horren bidez, Itsasondoko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileek tratamendu farmazeutikoak banaka prestatuta jasotzeko aukera izango dute. Programa hau bereziki etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duten pertsonentzat eta familia ingurunean zaintzak egiteko prestazio ekonomikoa jasotzen duten herritarrentzat bideratuta dago, eta zaintza egokiagoa eta pertsonalizatuagoa bermatzea du helburu.

Bestalde, azaroko osoko bilkuran Iker Mendizabal zinegotziaren kargu uztea jakinarazi zen. Udalak eskerrak eman nahi dizkio egindako lanagatik eta eskainitako dedikazioagatik, urte hauetan udalaren alde egindako ekarpena balioan jarritz.

Ingurumenarekin eta ondare historikoarekin lotuta, Legorretako San Jose meategi zaharreko putzuan (Zubingo eremuan) meatzaritzak eragindako lurzoru eta eremuen leheneratze proiektua onartu da. Horrez gain, proiektu hori gauzatzeko kontratazio espedientea ere onartu da eta lanen lizitazioa martxan dago jada. Jarduketa horrek ingurunea berreskuratzea eta bertako segurtasuna hobetzea du xede. Next Generation dirulaguntzen bidez finantzatuko dira lanak, eta hurrengo hilabeteetan gauzatuko dira.

Horrez gain, udalbatzak erabakitako aldaketak txertatu ondoren, 2026ko ordenantza fiskalak indarrean daude. Nahi duenak udalaren webgunean ditu eskuragarri. Azkenik, 2026ko udal aurrekontua ere onartu da aho batez; aurrekontu horrek datozen hilabeteetako udal jarduna gidatuko du, herritarren beharrei erantzuteko asmoz.



JOSE LUIS GOGAAN

Abenduaren 5ean agur esan zigun Jose Luisek, eta hutsune handia utzi du gure artean.

Egunero erakutsi zigun konpromisoa, gertutasuna eta lanerako grina, eta horregatik, ezinezkoa da haren falta ez sentitzea.

Udalan egindako lana eredugarria izan da. Harrerako administrazio lanetan, beti prest egon zen herritarrak adeitasunez, pazientziarekin eta errespetuz artatzeko. Bere profesionaltasuna eta arduraz egindako lana Itsasondoko Udalan ezinbestekoak izan dira.

Baina, lanaz haratago, bere umore ona eta irri-barrea izan dira lankideon egunerokoaren pizgarri. Giro ona sortzeko zuen gaitasuna eta pertsona gisa erakutsitako gizatasuna betiko gordeko ditugu gogoan.

Eskerrik asko, Jose Luis, eman diguzun guztiagatik. Gure oroimenean eta bihotzetan betiko bizirik jarraituko duzu. Bitartean, segi "txotx" egiten!



Itsasondoko udaletxeko lankideak



Haur eskolan zer ikasten den

.....
Familian jasotzen duten zaintza eta maitasuna funtsezkoak dira haurrak seguru eta babestuta sentitzeko.
.....

Etxean oinarri afektibo sendoa dutenean, haurrak errazago moldatzen dira haur eskolara eta lasaiago egoten dira.

Haur eskolan, haurrak pixkanaka beren burua ezagutzen hasten dira, eta beste haur batzuk ere badaudela ikusten dute, bakoitza desberdina dela ulertuz. Partekatzen ikasten dute, txanda itxaroten, jakin-mina garatzen, pentsatzen eta esperimentatzen. Aldi berean, gozatzen, barre egiten eta batzuetan negar egiten ere ikasten dute, eta horrela beren emozioak ulertzen eta kudeatzen hasten dira.

Inguruan moldatzeko behar dituzten tresna emozionalak, sozialak eta kognitiboak eskuratzen

dituzte, ondo sentitu daitezen eta konfiantzaz haz daitezen.

Batzuetan, etxean egoera jakin batzuk egon daitezke (hizkuntzarekin, portaerarekin edo bizi baldintzekin lotutako zailtasunak, adibidez). Haur eskolan, haur bakoitzaren beharrak kontuan hartzen dira eta laguntza eskaintzen da, denek aukera berdinak izan ditzaten eta modu egokian garatu daitezen.

Adin hauetan oso oinarri garrantzitsuak lantzen dira: norbera izaten ikastea, pixkanaka autonomoago izatea, komunikatzen ikastea, besteekin bizitzen eta harremanak egiten ikastea, ekintzen bidez ikastea, eta mundua ezagutzen eta pentsatzen ikastea.

Tertulia literarioak

2025-2026 ikasturtean, 2. hiruhilekoan, tertulia literarioak egiten hasi gara. Iaz, unibertsitateko ikasleekin izan genuen ekintza honen inguruko esperientzia Gatai proiektuaren bidez.

Ekintza aberatsa izanik, ikasturte honetarako, Gazteria Foroan Udalak Tertulia Literarioak egitea proposatu zigun eskola orduetan. Tertulia hauek LH 5. eta 6. mailako ikasleak ari gara jasotzen.

Unibertsitateko ikasle den Eneritz Otegi Aierbe itsasondoarrarekin egiten ditugu tertulia literarioak. Astearteko tutoretzako saioak erabiltzen ditugu horretarako, eta jada ordu beteko lau saio egin ditugu.

Saio hauetarako, liburuak etxetik irakurrita ekartzen ditugu eta gelan haien inguruan hitz egin dugu eta hainbat dinamika egiten ditugu.

"Nire Eskua Zurean" izan zen lehenengo liburua. Liburu honekin harremanen inguruan hitz egin genuen eta bakoitzak gure ikuspuntua eman genuen. Ondoren "Amore eman" liburuaren atal batzuk irakurri genituen eta orain "Kamisoi zuri zetazkoa" irakurri behar dugu.

Gustuko ekintza izaten ari da. Bakoitzak bere ikuspuntua emateko aukera izaten du gai ezberdinen inguruan.

Eskerrik asko Udalari ekintza honengatik.



Urkipeco LH 5. eta 6. mailako ikasleak





Urrun joan gabe, munduaren jabe

Gaur egun, hainbeste informazio hainbeste kanaletatik iristen zaigunez, munduko edo mundua ezagutzeko gure pertzepzioa aldatu zaigu.

Sare sozialetan, iragarkietan edota telebistan ikusten ditugu milaka pertsona edo pertsonaia, mundu osotik bidaiatzen dutenak eta munduko lurralderik ederrenak bilatzen aritzen direnak. Asia, Latinoamerika edota Australiako mendiak, hondartzak edota bestelako parajeak ezagutzen ditugu, baina ez gara gai gure inguruan ditugun altxor ugariak ezagutu eta baloratzeko.

Egia da gure etxe ondoan dauden paisaia, animalia eta landareak ezagutzen ditugula, baina ziur aski inguratzen gaituzten eta uste baino gertuago dauden txoko ugari ezezagunak direla guretzat.

Aurreko guztiari loturik eta hain zuzen ere gure inguruko altxorrez gozatzeko aukera izateko, otsailaren 7an, larunbata, Itturritxiki Guraso Elkarteak antolatuta, mendi irteera bat egin zen. Asmoa ez zen bakarrik mendi buelta bat egitea, baizik eta naturaz gozatu, ingurumena sentitu eta familien zein lagun arteko harremanak sendotzea. Talde polita osatu ostean eta giro ezin hobearrekin, bideari ekin genion.

Agarreko buelta ezaguna egin genuen, baina zenbait aldaketakin. Herriko plazatik hasita, Ordiziko San Juan auzoko baserrietatik pasa, eta mendi-bidea jarraitu genuen Itsasondorantz. Bitartean, jolasten, kantatzen eta elkarriketan ibili ziren, bai ume eta baita gurasoak ere. Bidean, untxiak, ahuntzak, zaldiak eta gaixo zegoen behi bat ere ikusteko aukera izan genuen.




Agarre baserrira ailegatu eta leku ezin hobea topatu genuen familiek, bertan hamaiketakoa eta bazkaria egiteko txokoa. Bakoitza bere etxetik ekarritako makarroiak, ogitartekoak, eta bestelako jatekoak mahaian ipini eta elkarrekin askari ederra egin genuen. Kanpoan eguraldi ezin hobea zegoen arren, Agarreko tximiniaren bero goxoa eskertzekoa izan zen. Bazkalostean, bertan zeuden jostailu eta nekazari tresnekin jolasean aritu ziren txikiak. Eta onena: zezen gurgildun baten aurrean korrika hasteko unea iritsi zen. Sanferminetan egongo balira bezala, haur zein helduek egin genuen korrika, zezanak harrapatu ez ziezagun.

Hala, ingurua zein taldekideak ezagunak izan baziren ere, inguruko parajeek eta txoko berriez gozatzeko aukera izan genuen, modu berri eta patxadatsu batean. Bertako giroa ezin hobea izan zen. Horregatik, Itturritxiki Guraso Elkartetik, herri osoa animatzen dugu hurrengo irteera eta ekintzetan parte hartzera, gure herri eta inguruko txoko ederrenak berrezagutzera gonbidatuz.

Gazteria Balorazioa

Itsasondoko Udalak, azken urteetan, PSZ (Parte hartzea sustatzeko zerbitzua) izan du martxan, Kili-kolo elkartearen laguntzarekin. Parte hartze zerbitzua herrian egin zen hausnarketa prozesutik eratorritakoa da, eta oinarrian, bertatik ateratako printzipioak lantzea eta garatzea du helburu.



Praktikan, helburu hauen lanketarako, as-teazkenetako kale ekintza (4-12 adin tartetarako berez, baina haur txikiagoek ere parte hartzen dute), ostiraletako gaztelekuko dinamika (12-16 urte), udalekuak (5-12 urte) eta gazteri foroan zehaztutako ekintza plana dugu oinarri. Apirilean, Kili-Kolorekin dugun kontratua amaituko da eta zerbitzuaren balorazioa egiteko hainbat modu landu nahi izan ditugu; herrian (bereziki guraso elkartearen) balorazio galdetegia zabaldu dugu, hezitzaile zein dinamizatzailearen balorazioa jaso dugu eta Kili-kolo elkartekoekin iritzi horiek partekatu ditugu.

Labur bada ere, herrian zabalduko galdetegiaren emaitzak partekatu nahi ditugu. Txostena osorik ikusteko aukera duzue: <https://itsasondo.eus/node/10059>

- ✓ 20 erantzun jaso dira.
- ✓ Erantzun dutenen % 90k 0-16 urte bitarteko haurrak ditu.
- ✓ % 85k zerbitzua ezagutzen du.
- ✓ 17k 3tik gorako puntuazioa eman diote. (1etik 5erako tartean).
- ✓ Parte hartzea sustatzen duen galdetuta, erabat (2), asko (6) eta neurritz (3), 11 erantzun positibo izan dira; gutxi (7) eta batere ere ez (2), 9 erantzun negatibo.
- ✓ Herriko printzipioen lanketan laguntzen duen edo ez galdetuta, bai erabat (4) eta bai nahikoa (4) erantzun positiboak; eta ez batere (1) eta ez asko (8) izan dira, 9 erantzun negatibo hortaz. 3k ez dakite.

Herrian egindako hausnarketan ateratako printzipioak lantzeak garrantzi berezia du Gazteri Foroarentzat, hortaz, galdera honetan sakontzeko eskatu zaie:

- *Herriko umeak euskaraz eta herrian egon eta atxikitzeko aukera da!*
- *Gazteon zerbitzua herritarren beharretara dagoela iruditzen zait, herriko edozer gauzeta-rako hor daudela.*
- *Estoy agradecida.*
- *Herria haurrentzako dago antolatua, gazte-entzako espazioak gutxi dira eta gaztetxerako sarbidearen funtzionamendua ez doa ondo. Txartel fisiko batekin askoz hobe joango zen, udaletxekoa edo liburutegikoa bezala.*
- *Nolako haurrak nahi ditugun galdetzen dugu eta erantzuna ekintzen bidez bultzatu liteke. Zerbitzu honek bakarrik ezin du bermatu bere horretan, baina tantoz tanto bai, noski laguntzen duela.*
- *Haur autonomoak eta ekintzaileak nahi ditugu besteak beste, eta ekintza hauek ez dute ez bata ez bestea sustatzen, dena egin ematen baitzaie.*
- *Jarraitu horrela!*
- *Herriko umeak denak dira 2-16 urte artekoak, eta txikiak ekintza askotan kanpo gelditzen dira.*

Asteazkenetan egiten diren kale ekintzen inguruan galdetuta, ekintzaren ordua eta espazioaren egokitasunaren inguruan, orohar, balorazio ona jaso da. Haurren parte hartzearen eta haurren motibazioaren inguruan galdetuta oso altua (2), altua (5) eta ertaina (9), balorazio positiboa da. Oso baxua (2) eta baxua (2), 4 erantzun negatibo izan dira.

Gaztelekuaren inguruan ere, galdera berdinak egin dira, baina ez dira adierazgarriak erantzun duen bakarrak baitu adin tarte horretan seme-alabaren bat.

Zerbitzua mantentzearen inguruko galderan, egungo moduan mantenduko luketela erantzun dute batzuek (7), beste batzuek baietz, baina hobe-kuntzekin (6) erantzun dute. 6k ez lukete zerbitzua mantenduko. Horren inguruan ekarpen hauek egin dituzte:

- *Zerbitzu egokia ematen dutela uste dut.*
- *Ostiraletan gazteek ez dute gaztelekuan begiraleekin egon nahi. Ez dut esan nahi begiraleen lana ez dela egokia, baina hausnartu beharko litzateke, askotan, ostiraletan begiraleak hor egoten direla, haurrik gabe.*
- *Porque llevan buen control.*
- *Espazio horretan egiten dituzten ekintza asko herriko beste tokietan egiteko aukera dago: adibidez, ludoteka, plaza, etab.*
- *On egiten duen zerbitzu bat da.*
- *Ekintza horren gidatuak izan gabe jarrera kritiko eta aktibo bat sorrazi beharko lukete gure haurrengan. Esfortzuen kultura zeozer zabaldu beharko genuke, dena egina ematen diegu eta ez dute konpromisorik hartu.*
- *Jarraitu beharreko jarduerak direla uste dut.*
- *Relación coste y participación, personalmente lo quitaba.*
- *Ya he mencionado en puntos anteriores posibles mejoras.*
- *Haur guztientzako ez dago zuzenduta, astean zehar ez dabilta haur asko herrian eta oso ume gutxi erabiltzen dute.*
- *Udalak zerbitzu honekiko zein balorazioa eta ebaluazio egiten duen, zerbitzua kontratatu eta ezarri zituen helburuen lorpen maila, zein gabezi eta indargune ikusten dizkion jakitea lagungarria izan daiteke gurasoentzat. Lehen aipatu bezala, espazioa baliagarria izan liteke herriko haur eta gazteei zuzendua, baina ez*

aisialdiko begiraleen bidez. Eskuhartze sozio-hezitzaile eta psikosoziala eskainiko nuke profesional egokiek, eskuhartze eta proiektu komunitarioen bidez.

- *Aldaketak baino, gurasoekin lanketa egingo nuke.*
- *Bi lanpostu ematea besterik ez zait iruditzen, izan ere hitz egin dudana nerabe zein hurrek ez dute sekulako ongi pasa dutela aipatzen.*
- *La propuesta actual es buena.*
- *Txikiak ere barne egotea, ipuin kontaketan, eta ekintza askotan.*
- *Ez dira originalak. Ez dute herriko ezerekin loturarik.*

Aipatu bezala, ezin gara erabateko sakontasunean sartu artikulu honetan, baina, laburbilduz, hau da zerbitzuaren inguruan ondorioztatu dena eta zerbitzu berrira begira kontuan izan behar duguna:

- Zerbitzua mantentzea egokia litzateke, betiere, errealiter egokitu eta helburu zehatz batzuei erantzuteko.
- Ezin da aisialdi eskaintza soil bat izan. Herriko haur eta gazteen beharretara egokitu behar da.
- Zerbitzua emateko egunak, moduak eta orduak aztertu behar ditugu.
- Orokorrean egiten den lana baloreen jarri nahi izan da eta galdetegian eman diren hainbat erantzunen inguruko kritika azaldu da. Helburua ez da inoiz inorren lana epaitzea izan eta hainbat iritzik hori egin dute.
- Zerbitzua ezarri zeneko helburuak izan behar dira kontuan. Horiei erantzuten badie, zerbitzua egokia da. Herriko hurrek aisialdi eskaintza izateko beharrezkoa da.
- 2-12 urte bitarteko hurrei zuzendutako asteazkenetako ekintzetan baloratzen da oso adin tarte zabala dela helburuen lanketarako.
- Adin tarteak ez banatzea herriko lanketan ateratako printzipioetako bat zela ere aipatu zen.
- Euskarak zerbitzuaren ardatza izan behar du. Herrian kezka handia dago gaiarekin eta hau bermatzeko eskaintza egokia izan liteke zerbitzua.
- Plazan ibiltzen ez diren haur/familiengana iritsi behar du zerbitzuak.

Urteari begirako plana

Ikasturte berriarekin batera, urteko ekintza plana adostu da gazteria foroan, herriko hainbat eragilerekin elkarlanean.

Azken urteetako dinamikari jarraituz, 2025-2026 ikasturterako Ekintza Plana adostu dugu Gazteria Foroan (Guraso Elkarte, Ongizate, hezitzaileak, Altxa Burua, udal ordezkariak eta dinamizatzailea).

Herrian egon daitezkeen beharrei erantzuteko asmoz, helburuak zerrendatu eta horiek lantzeko lehenetsunak ezarri ditugu. Horrela, ikasturtean zehar, foroak, egiten dituen 6-7 bilkuretan, jarraipena egiten dugu.

Aurtengo ekintza planak 4 alor lantzeko borondatea du.

Lehenik txikienen adin tarteari zuzenduriko helburuak zehaztu dira:

HAURRAK (0-12)	
1.	Haur guztientzako arreta eskaini.
1.1	Herriko haurrek izan ditzaketen beharrak atzeman.
1.1.1	Beharrak zerrendatu gazterei foroan eta itenbideak aztertu.
1.1.2	PSZ zein udalekueetan egoera zaurigarrian dauden haurren parte hartzea bermatu.
1.1.3	Eskolaz kanpoko ekintzak eta profesionalen dirulaguntza oinarriak
1.2	Herri bizitzako ekintzetan haur guztien parte hartzea bermatu.
1.2.1	Eskola Kirolako jarraipena
1.2.2	Tertulia literarioak eskaini
1.2.3	Itsasondoko jaietan haurren parte hartzea aktiboa bultzatu
1.2.5	Asteazkeneko kale ekintzen dinamikak
1.2.6	Eskolako ekintzak txertatu
1.2.7	Guraso elkarteak ekintzak
1.2.8	Kulturako ekintzak
2.	Haurren parte hartze aktiboa bultzatu.
2.1	Parte hartze guneak identifikatu eta parte hartzea nola definitu.
2.1.1	Asteazkenetako kale ekintzak dinamikak.
2.1.2	Eskola
2.1.3	Jai batzordea
2.1.4	Udaleku parte hartzaileak
2.1.5	Kultur ekintzak
2.2	Haurren kontseilua sortu
2.2.1	Haurren foroa sortzeko kronograma zehaztu
2.2.2	Saioak aurrera eramán.
2.2.3	Saioen balorazioa egin

Herriko nerabeei dagokienean, hau da zehaztu dena:

NERABEAK (12-16)	
3.	Nerabeak eragile aktibo izan daitezzen sustatu.
3.1	Herriko nerabeak gaztelekuo dinamikara lotu.
3.1.1	Gaztelekuo dinamikara nerabeak gerturatu.
3.1.2	Gaztelekuo plangintza beraiekin adostu.
3.1.3	Udako eskaintza egiteko aukera beraiekin aztertu.
3.2	Herriko nerabeekin komunikazioa
3.2.1	Sareak elikatu eta harreman berriak egin
3.2.2	Herriko aldizkarian eta web orrian beraien atala elikatu dezaten bultzatu.
3.3	Parte hartze guneak identifikatu eta parte hartzea nola definitu.
3.3.1	Ostiraleko gaztelekuo dinamika
3.3.2	Jai batzordea <i>Haur kontseilua</i>
3.3.3	Kultur ekintzak
3.3.4	Begirale eta aisialdi titulurako dirulaguntzak atara.
3.5	Gazte kontseilua sortu
3.5.1	Gazte kontseilua sortzeko oinarriak eta aukerak aztertu.

Udako eskaintzari dagokionez, UEMATik bidertzen den eskaintzara gonbidatzea lehenetsi da eta Gazte Kontseiluaren sorrera ez da aurtun landuko (Haur Kontseiluari lehenetsuna eman zaiolako).

Horiez gain, herriko gazteei begirako hainbat helburu lantzeko beharra atzeman da:

GAZTEAK (17+)	
4.	Gazteen komunitateko parte hartzea sustatu eta aktibatu.
4.1	Komunikazio kanala sortu eta elikatu
4.2	Herrian dauden guneetan parte hartzeko aukerak proposatu
4.2.1	Herri bizitza batzordea
4.2.2	Jai batzordea
4.2.3	Kultura lantaldea
4.3	Etxebizitzaren azterketa egin (beraien iritzia jasó)
4.4	Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroak egiteko dirulaguntza oinarriak atara.

Gazteri Foroari ahalik eta etekin handiena ateratzea urteko erronka dugu. Hori horrela, hainbat ekintza aurreikusituz dira:

GAZTERI FOROA	
5.	Gazteri foroari ahalik eta etekin handiena atara= emaitzak
5.1	Dinamika sistematizatu
5.1.1	Egutegi bat zehaztu, bileretan landuko duguna zehaztu.
5.1.2	Bileretara edukiak prestatuta ekari (gaiak, etxeko lanak, ekarpenak...)
5.2	Foroko eragileen beharren inguruko lanketak kontuan izan
5.2.1	Beharrak atzeman eta erantzun posibleak eman
5.3	Oinherri/ gaztematika sarea baliatu
5.3.1	Oinherri zein gaztematikatik eskaintzen zaizkigun baliabideak ezagutarazi/erabili
5.4	Foroko lanketak herriratu
5.4.1	Herri aldizkarian eta web orrian gazterei atala elikatu.
5.5	PSZ zerbitzua baloratu eta jarraipena aztertu.



Haurrek ere badute zer esan

Gazteri Foroan zehazturiko 2025-2026 Ekintza Planean, ikusi ahal izan duzuen bezala, Haur Kontseilua sortzea da aurtengo helburuetako bat.

Gazteri Foroan egindako hausnarketako bat zera da: haurrentzat eta hurrez ari garela, baina beraien iritzia jasotzeko bitartekoak ditugun arren, nahikoak ez ote diren eta hauek sortu eta sendotu beharko genituzkeela.

Hori horrela, foroan, 5. eta 6. mailakoekin Haur Kontseilua sortzea pentsatu genuen. Lehenik beste herrietako esperientzia batzuk ezagutu genituen, eta Azpeitiko gazteria teknikaria gurean izan zen bertakoen hastapenak kontatzeko.

Gurera ekarriz kronograma bat zehaztu dugu, pausoak modu antolatua eta bateratuan emateko asmoz.

Lehenik, gelako ordezkariekin egin dugu saioa (urtarrilaren 14ean) eta ondoren beraiek izan dira, eskolan, gelakideekin saioa gidatu dutenak (otsailaren 4ean).

Lehen saio horretako helburuak hauek izan dira:

- Herrian landu nahi dituzten lehentasunak zehaztea.
- Foro/ kontseilu honi izena jartzea.
- Kontseiluaren berri ematea herrian.
- Saio hau baloratu eta hurrengo saioen berri ematea.

Ikusi bezala, lehen erabakietako bat kontseilu honen berri herriari nola eman izan da, eta beraiek jada pentsatu dute nola; hortaz, izango duzue gure berri.



2026ko URTARRILA	2026ko OTSAILA	2026ko MARTXOA	2026 MAIATZA
<ul style="list-style-type: none"> • Eskolan aurkezpena egin, urtarrilak 14 • Ordezkarier hautaketa egin (Eko ordezkariak) • Ordezkarier gurasoei baimena eskatu. • Haurrei ordezkariak zeintzuk diren adierazi. • Kontseiluan landu nahiko ziren gaien biltzea, urtarrilak 14-21. • Teknikari eta hezitzaileak saioa prestatu. • Kontseiluko lehen bilkura egin, urtarrilak 28: 	<ul style="list-style-type: none"> • Ordezkariekin saioa egin eskolan. Otsailak 4 • Saioaren akta egin eta partekatu. • Bideo egin behar bada nola egin adostu. • Kontseiluaren berri eman (web gazteri atalean, telegram) • Teknikari eta hezitzaileak, bigarren saioa prestatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteria foroan lehen saioaren edukia partekatu eta bigarren saioaren edukia partekatu. Martxoak 4 • Kontseiluaren berri eman (aldizkarian, bideoa...) • Teknikari eta hezitzaileak bigarren saioa prestatu. • Kontseiluko bigarren saioa egin Martxoak 18 • Ordezkariekin saioa egin eskolan. Martxoak 25 • Saioaren akta egin eta partekatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteria foroan bigarren saioaren nondik norakoak azaldu eta hirugarren saioaren (prest badago) edukia partekatu. Maiatzak 6 • Teknikari eta hezitzaileak hirugarren saioa prestatu. • Kontseiluko hirugarren bilkura egin Maiatzak 13 • Ikasturteko ebaluazioa eta itxiera eskolan. Maiatzak 20 • Ebaluazioaren deboluzioa Gazteri Foroan Ekainak 17

Nellyin Garcia Perez



.....
Bi urte daramatza herrian Nellyinek.
Aukeran, lanetik urrun bizibada ere,
pozik da herriko lasaitasunarekin.
.....

Noiz etorri zinen Itsasondora bizitzera?

Azaroan bi urte bete nituen herrian.

Non bizi zinen lehen?

Lasarten bizi nintzen.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

Ez nuen aurretik asko pentsatu, bat-bateko erabakia izan zen.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egun hartatik?

Lasaitasuna gogoratzen dut, pertsona gutxi ikusi nituen.

Zer lanbide duzu?

Soziosanitarioa, adineko pertsonak zaintzen ditut.

Itsasondotik zer ez zaizu gustatzen?

Lantokitik pixkat urrun geratzen da.

Itsasondotik zer gustatzen zaizu?

Gainontzeko gutzial! Lasaitasuna, bakea, komunitatea.

Zer zaletasun dituzu?

Paseotxoak, nire umeekin egotea.

Janaririk gogokoena?

Jatun ona naiz, bat aukeratzea kosta egiten zait.

Edaririk gogokoena?

Coca-cola.

Gogoko duzun Itsasondoko edo Goierriko leku bat?

Ibares errotako ingurua, base-
rria, ibaia...

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Semeak barrez, pozik, ikusteak.

Itsasondon biziko ez bazina, non biziko zinateke?

Intxaurrondon adibidez, lantokitik hurbilago baitago.



Itsasondoko etxebizitzak: irisgarritasuna eta erronkak

.....

Itsasondon etxebizitzaren gaia berriro erdigunean jarri da azken hilabeteetan, udalerriko biztanleen beharrei erantzuteko asmoz. Bi ardatz nagusi daude: irisgarritasuna eta etxebizitza berrien beharra, eta biek etorkizun hurbilari begira erronka garrantzitsuak planteatzen dituzte.

.....

IRISGARRITASUNA: IGOGAILUAK ETXEETAN

Azaroan hainbat etxebizitzetan igogailuak jartzeko informazio-bilera antolatu zen. Herritar askok parte hartu zuten, eta beharrak udalaren konpromisoarekin uztartu ziren: aurreproiektua lantzeko urratsa ematea. Aurreproiektu horiek apirilean aurkeztuko dira, eta helburua argi dago:

Itsasondoko bizilagun guztiek etxebizitza seguru eta irisgarri batean bizitzeko aukera izan dezatela, adina edo mugikortasun arazoak direla medio.

GISLAN enpresak egindako diagnosiak, gainera, errealitate kezkarri bat azaleratu du: Itsasondoko etxebizitza parkea oso zaharkitua dago neurri handi batean, eta horrek egoitzapen eta berrikuntza sako-

nak eskatzen ditu. Irisgarritasun arazoez bereziki eragiten diete adinekoei eta mugikortasun urriko pertsonen; horregatik, lehenetsunak ezarri eta konponbideak lehenestea ezinbestekoa da.



ETXEBIZITZA BERRIAK: HERRITARREN BEHARRAK ETA AUKERA BERRIAK

Itsasondon, etxebizitza berrien beharra nabarmena da. Etxebizitza azterketak etxebizitza hutsak atzemateko balio izan du, eta ikusi da gaur egun erabilerarik gabe eta egoera bizigarrian dauden etxebizitzaren kopurua mugatua dela, 10 unitatetik beherakoa. Hortaz, beharrei erantzuteko etxebizitza berriak egiteko aukera ari da lantzen Udala. Gai hau aspalditik hausnatzen ari den gaia bada ere, GISLANek egindako diagnosiatik abiatu eta herritarren iritzia ezagutzeko, abenduan inkesta bat burutu zen.

Hona hemen emaitza nagusiak:

- Erantzun duten gehienak 35-65 urte bitarteko herritarrak izan dira, baina gazteen ordezkariak (18-25 urte) ere nabarmena izan da.
- Gazteen artean, emantzipatzeko gogoia nagusi da. Beste adin-tarteetan, irisgarritasuna hobetzea eta hainbat tamainatako etxebizitzaren beharra nabarmendu dira.
- Inkesta erantzun duten herritarren ia %65k hurrengo 4-5 urteetan etxebizitza aldatzeko prestutasuna adierazi du, 15 pertsonak hain zuzen ere.
- Horietatik %35 prest daude etxebizitza jabetzan hartzeko, eta %25k, berriz, alokairuan bizi nahi du.

Datu hauek argi erakusten dute Itsasondon etxebizitza eskaeraren profila anitza dela: gazteek beren aukera bilatzen duten bitartean, beste adin-tarteetako herritarrak bizi-kalitate hobeko baten bila ari dira, eta garrantzitsuena: **gehiengoak herrian jarraitzeko gogoia du**. Horrek 2026rako erronka argia uzten digu: zein motatako etxebizitza berriak behar ditugun planifikatzea, irisgarritasuna hobetzea eta bizilagunen beharrak modu integralean asetzea.

Itsasondoko herritarren parte-hartzea funtsezkoa da guretzat, eta horregatik herri irisgarri, atsegin eta bizigarria sortzea dugu helburu, non **guztion beharrak eta iritzia kontuan hartuta** hartuko diren erabakiak. Datozen hilabeteetan argibide gehiago eman ahal izatea espero da, Udalak bere etxebizitza politika lantzen duen heinean.

Itsasondon sortu eta partekatutako energia

Itsasondon badira dagoeneko energia berriztagarria sortzeko eta kontsumitzeko hainbat esperientzia, eta horien artean **HITZAR energia komunitateak** paper garrantzitsua betetzen du.

HITZAR-ek, gaur egun, **bi instalazio fotovoltaiko** ditu martxan: **Iraolan (10 kW)** eta **Lukasainen (65 kW)**. Bi instalazio horietan **52 itsasondorrek** parte hartzen dute, eta gehienek **1 kW-eko zatia** dute. Horrek aukera ematen die herritarrei euren etxebizitzetan kontsumitzen duten energiaren zati baten onuradun izateko; hau da, **bertan sortua, berriztagarria eta kolektiboa den energia** kontsumitzeko.

Parte hartze honek hainbat onura dakartza:

- **Fakturan aurreztea:** 1 kW duen herritar batek urtean **1.200 kWh inguru** energia berriztagarria sortzen ditu, eta horri esker **hileko argindar fakturan aurreztu egiten da**.
- Energia-merkatuaren gorabeheren aurrean **babes handiagoa** izatea.
- **Energia-eredu bidezkoago eta jasangarriagoa** baten parte izatea.

Baina onurak ez dira banakakoak bakarrik. **Herri mailan**, tokian tokiko energia sortzeak ondoko ekarpen hauek egiten ditu:

- Kanpotik ekarri gabe, **bertan energia berriztagarria sortzea** ahalbidetzen du.
- **Dirua eskualdean bertan geratzea** sustatzen du.
- **Komunitatea indartzen** du.
- **CO₂ isuriak gutxitzen** ditu, klima-larrialdiari aurre egiteko urrats eraginkorra izanik.



Itsasondoko udalaren apustua energia berriztagarrien alde

Bestalde, **Itsasondoko Udalak** ere energia berriztagarrien aldeko apustua egin du, eta **hiru instalazio fotovoltaiko jarri ditu martxan**.

Udaletxeko teiltuan dagoen instalazioak **udal eraikina bera** hornitzen du; frontoiko instalazioak (50 kW), berriz, **udalaren hainbat eraikin publiko** elikatzen ditu, besteak beste: mediku etxea, jubilatuen elkartea, Ibalur eta Kaxintane. Biltegiko instalazioari (10 kW) oraindik ez zaio kontsumorik esleitu, baina hurrengo hila-beteetan udal sarera konektatzea aurreikusten da.

Instalazio hauek urtean zehar **energia berriztagarria ekoizten dute**, eta horri esker, udal-eraikinen kontsumoa murrizten da, eta **gastu ekonomiko eta ingurumen inpaktua txikitzen da**.


Udalaren eta herritarren ekimenez norabide berean egiten dutenean, emaitza argia da: **energia garbiagoa, gertugokoa eta guztiontzat onuragarriagoa**. Itsasondon bide hori irekita dago jada, eta etorkizunean are gehiago sendotzeko aukera izango dugu.

BATU ZAITEZ HITZARERA!



Kale-katuak

.....
 Nolabaiteko harriduraz ikusten dugu kontsiderazio moralak merezi dituzten entitateak zabaltzea, gizakietatik haratago zabal daitezzen eta gizakiak ez diren izakiak barne har ditzaten.



Ondorioz, hainbat lege-tresnek eskubideak ematen dizkiete animaliei. Hala ere, animaliak diskurtso moraletan sartzeko joera handiak izaten dira, eta ornodun karismatikoak, familiarrak eta ederrak nahiago izaten dira.

Horietako bat etxeko katua da. Munduko 100 espezie exotiko inbaditzaile okerrenen zerrendan sartuta badago ere (IUCN), animalien eskubideak eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legearen xede berezia da. Lege horrek katu koloniei buruz hitz egiten du, eta katu "komunitarioen" populazioak kontrolatzeko arau batzuk ematen ditu, haien populazioa pixkanaka murrizteko, baina konpainiako animalia gisa duten babesari eutsiz.

Kontuan hartzen badugu kaleko katuek mundu mailako hegazti, ugaztun eta narrastien iraungipen garaikideen laurden batean baino gehiagotan inplikaturik egon direla, ez da harrizkoa harrapari inbaditzaile kaltegarri gisa seinatu izana. Katuen harrapaketak ugaztun txikien eta hegaztien heriotza-kausa nagusiak dira, kolpaketen, pozoitzearen edo giza ehizaren aurretik, eta, herritarren ustearen aurka, ondo elikatutako kolonia-katuek basa-harrapakinak ehizatzen dituzte oraindik, eta, dentsitate handia dutenez, kale-katuek askoz ere eragin handiagoa izaten dute harrapakinaren populazioetan, bertako harraparietako baino.

Adibidez, ugaltze-denboraldiaren hasieran hainbat herritarren ohikoak diren txolarreen kopurua eta katuek harrapatu zituzten txolarreen kopurua kalkulaturik, txolarreen heriotzen %30 gutxienez animalia horiei zor zaiela ondorioztatzen da.

Gainera, katuek gaixotasun zoonotikoak transmititu ditzakete, hala nola amorrua, entzefalitisa eta

toxoplasmosia, basa-bizitzari eta baita gizakiei ere, osasun publikoa arriskuan jarritik.

Aipatutako Legeak egiten duen bezala, katuek "babestutako basa-bizitza" gisa onartu eta tratatu nahi izateak berekin dakar kaleko katuek harrapaketa-esterilizazio-itzulera (HEI) metodoaren bidez maneiatzeko programak hartzea, hau da, harrapatutako, antzutatuko eta ingurunera itzultutako katuek, boluntarioek elikatu eta zaintzeko. Metodo horri esker, gainera, kaleko katuen koloniek desagertzen edo, gutxienez, egonkortzen joango lirarteke, beste katu batzuen inbasioa saihestuz.

Baina esperientziak argudio horien kontra egiten du, eta, aztertu diren lekuetan, emaitzek erakusten dute metodo hori ez dela eraginkorra kaleko katuen populazioa kontrolatzeko, eta berretsi egiten dute katuen koloniek ezartzeak nahi ez diren katu gehiago abandonatzera bultzatzen dituela. Eta hori konpainiako animaliak kontrolatzeko tradizio handia duten herrialdeetan, ez Espainiako Estatuan bezala; izan ere, Legeak berak aitortzen duenez, harrera-zentroetara iristen diren katuen %4,3 baino ez daude mikrotxiparekin identifikaturik.

Laburbilduz, kaleko katuen kontrola, batez ere animalien ongizateari buruzko gai gisa ikusi eta arautua, ingurumen-gaitzat hartu beharko litzateke, eta hori ezartzeko erabakiak ingurumen-inpaktuaren beharrezko ebaluazioaren xede izan beharko lirarteke. Katu-kolonien defendatzaileek epe luzerako konponbidea bilatu behar dute maskoten gehiegizko populazioari dagokionez, eta beren ahaleginak funtsezko arazora bideratu behar dituzte: maskoten jabe batzuen erantzukizunik ezera.



Aiuri Sodupe Plazaola

Tolosa C.F. taldeko gimnasta

Urtetxo batzuk daramatza Aiuri Sodupe Plazaolak gimnasia erritmikoa praktikatzen. Gustura aritzen da zernahi materialekin akrobaziak egiten. Gogor entrenatzen da, eta gustura dabil Tolosako taldean. Iazko azaroan, Espainiako txapeldun geratu zen: 112 taldetatik, lehen postua lortu zuten Aiurik eta bere taldeak.

Aurkeztu zure burua.

Aiuri Sodupe Plazaola naiz, eta 12 urte ditut. Beasainen jaiotzen nintzen, baina orain Itsasondon bizi naiz. Lagunekin egotea, atrakzio parkeak bisitatzea, bidaiatzea, irakurtzea eta gimnasia erritmikoa egitea gustatzen zait.

Noiztik zara itsasondoarra?

Itsasondora 4-5 urterekin etorri nintzen bizitzera, baina 3 urterekin Urkipe eskolan hasi nintzen, orduan ikijoa naizela esan daiteke.

Txikitako zein oroitzen dituzu?

Txikitan, plazara jetsi eta neska kuadrila handi bat ibiltzen ginela gogoratzen dut. Adin askotako neskek ginen, 2-3 urteko ezberdintasuna genuen eta ni txikienetarikoak nintzela. Handien babesean ibiltzen nintzen.

Eta eskolaz oroitzen zara?

Baai, asko gogoratzen naiz Urkipe eskolaz. Txikitan Kris irakaslearekin pantaila berdean egiten genituen antzerki eta bideoez asko gogoratzen naiz. Leire eta bere matematika saioez ere oso oroitzen politak ditut; orain, Oianguren institutuan nabilela asko sumatzen dut bere azalpen eta jolasen falta. Iruneren txantxa eta adar jotzeak ere gogoratzen ditut; berarekin umore ona zen nagusi. Eskola zaharrean pasatzen genituen momentuekin ere asko gogoratzen naiz.

Jakin dugu azaroan Espainiako txapelak izan zirela gimnasia erritmikoan. Kontatu non eta nola hasi zinen gimnasia egiten.

Txikia nintzela hasi nintzen kirol hau praktikatzeko, Ordizian. Sua nire lengusuak ere egiten zuen, eta berak egiten zituen gauzak

ikasi nahian hasi nintzen. Herriko bi neskekin joaten nintzen, kotxea partekatzen genuen eta pixkanaka trebetasunak gartzen eta zaletasuna pizten joan zitzaidan.

Beranduago, 10 urte nituenean, Tolosan talde bat sortu behar zutela komentatu eta bertako partaide izateko proposamena egin zidaten. Han ezagutu nuen gaur egun kide naizen boskotea. Urte horretan bertan hasi ginen eskola mailan lehiatzen, eta bi ikasturtetan oso emaitza onak lortu genituen.

Lehenengo ikastute amaieran, gure taldeak Espainia mailan (3. mailan) konpetitzen hasiteko proposamena jaso zuen. Erabakia hartzea ez zen erraza izan, entrenamendu denborak luzatuko baitziren, DBHrako saltoarekin kointzidituko zuen, asteburuetan Euskal Herri mailan konpetituz gain Espainian (Zaragoza, Valladolid, Tenerife...) konpetitzen hasiko ginen, eta gainera, horrek guztiak familiei euren gain hartu beharreko gastu ekonomiko bat zekarkien. Familian hartu genuen erabakia, eta guztien onespenerekin saltoa ematea pentsatu nuen. Zortez, talde osoak erabaki bera hartu genuen.

Nolakoa izan zen ikasturteko lehen denboraldia?

Gimnasia erritmikoan ikasturteko bi denboraldi izaten dira: irailetik azarora lehena, eta martxotik maiatzera bigarrena.

Kategoria honetako lehen denboraldia izan zen, eta gainera, aparatu berriarekin estreinatu ginen. Aurreko ikasturteetan, pilotarekin lehiatu ginen, eta honetan, soka izan da dominatu beharreko aparatua. Hasiera gogorra izan zen, exijentzia han-

diagoa nabari zen entrenamenduetan, eta bagenekien talde askoren kontra lehiatu beharko ginela.

Denboraldia aurrera joan ahala, lorpen txikiak eskuratuz joan ginen: Gipuzkoako Txapelketa, Euskadikoa, Euskalgym-a... Larraona talde nafarra genuen arerio nagusizat.

Azkenik, azaroaren 21ean, Castellonen izan zen Espainiako Txapelketa, 112 taldeetatik lehen postua lortu genuen. Mundiala izan zen, oraindik ere oilo ipurdia jartzen zait momentu hura gogoratzen dudanean. Maiz ikusten dut egun horretan eginiko lanaren bideoa.

Hortaz, Espainian zehar lehiatu zarete. Nola moldatzen zara bidaia horietarako?

Normalean, txapelketa guztietara familian joaten gara. Alde batetik, guztiek ikusi nahi nautelako eta gustura joaten direlako, baina bestetik, ez dugulako beste aukerarik. Txapelketa urrutituz denean, ostiraleko entrenamendua amaitu, eta jarraian, furgoneta hartu eta bidaiari abiatzen gara. Nahiago izaten dut txapelketako lekuan lo egin, horrela hurrengo egunean urduritasun gutxiago izaten baitut. Tenerifeko eta Castellongo txapelketetara klubarekin joan nintzen, hegazkinez. Bidaia horietarako, babesleen (CMO Valves, Garaje Tolosa eta Udako) laguntzatxo izaten dugu, baina ez da nahikoa izaten, eta gaitzazkoak gurasoek ordaindu behar izaten dute.

Aipatu ditudan azken bi txapelketetara joateko eskolako egunak galdu izan ditut. Horretarako, federazioak baimen berezi bat ematen digu, eta institutuek ez dute arazorik jartzen. Hori



Urkipe, eskolako lagunekin, txango batean.



2023an Erroman oporretan.



Gabonetan, herritik barrena panderoa joaz.



Espainiako txapelketako une batean.

bai, egun horietan klasean egin-dakoa nire kabuz errekuperatu behar izaten dut, lagunei galde-tuz, apunteak eskatuz... Orain-goz, ez dut arazorik izan; lagun onak ditut.

Gurasoek eta baita Hegoak ere, jai egunak edo soldatarik gabeko egunak hartu behar izaten dituzte egun berezi horietan, baina pozik hartzen dituzte. Emozio askoko egoerak bizitzen dituzte, eta nirekin batera egon nahi izaten dute; familian betetzen ari garen ametsa da hau guztia. Hegoak, gainera, izugarri gustuko du mundu hau, eta uste dut nire pausoak jarraitzeko irrikan dagoela.

Esan diguzu pilota eta soka-ekin aritu zaretela orain arte.

Zuek erabakitzen duzue zein aparaturekin lehiatu?

Ez, erabaki hori federazioak hartzen du. Gimnasia erritmikoa oso araututa dagoen kirola da, eta gainera, araudia aldatu egiten da olinpiar joko bakoitzaren ondoren. Bost aparatu daude: pilota, soka, uztaia, mazak eta zinta. Denboraldi, adin eta kategoria bakoitzak zehaztua du zein aparaturekin egin behar duen dantza. Dantzak, gainera, 2 minutu eta 30 segundu inguruko iraupena izan behar du, eta nahitaezko zenbait elementu eta zailtasun txertatu behar ditugu. Dantzaren konposizioa egiteaz entrenatzaileak arduratzen dira, eta dantzak dituen elementuen arabera puntuazio

bat izaten du. Gimnastak tapizera gure lana defendatzera irteten garenean, dantza ahalik eta ondoen egitea da helburu. Bitartean, 8-12 epailek (konpetizioaren arabera) zorroztasun handiz behatzen gaituzte, eta eginiko akats bakoitzagatik puntuak kentzen joaten dira. Amaitutakoan taldearen puntuazioa ematen dute.

Beraz, dantzaren egiturak garrantzi handia du lehiaketan?

Bai, bai, erabatekoa. Gainera, sormena, musika eta dantza eta musikaren arteko erlazioak ere puntuazioa du. Gure entrenatzaileek, entrenatzaile onak izateaz gain, oso dantza politak eta elaboratuak sortzen dituzte.

Eta zer nolako harremana du-



2025eko azaroa. Espainiako txapelketa. Tolosako Oinarrizko Infantilak Nerea Otaegi eta Sara Alonso entrenatzaileekin.



2025eko azaroa. Espainiako Txapelketa. Castellon.

zue taldekideen artean?

Oso ondo moldatzen gara. 5 neska gara, eta gimnasia erritmikotik kanpo ere planak egiten saiatzen gara. Nirekin batera, Tolosako bi neska eta Lazkaoko eta Idiazabalgo beste bi neska daude. Guztiak adin berekoak gara, bat izan ezik, eta ondorioz, hurrengo denboraldi honetan infantil izan beharrean, kadete izatera pasako gara.

Zein da zure asteko errutina? Zenbat denbora eskaintzen diozu kirolari? Eta ikasketei?

Astean zehar, 3 entrenamendu izaten ditut, 2,5 ordukoak; horrez gain, balleteko saioa ere izaten dugu. Asteburuetan, orokorrean, entrenamendu bakarra izaten dugu. Behin denboraldia hasten denean, asteburuetako entrenamenduaren orde txapelketak izaten ditugu. Oraingoan, denbora gutxiago eskaintzen diot ikasketei. Egunero, egin beharreko etxerako lanak egiten ditut eta zenbait arlo (natur, ingelesa, mate....) errepasatzen ditut. Azterketaren bat dudanean, entrenamendua eta gero ikasi egin behar izaten dut, eta askotan, zaila egiten da nekeari aurre egitea.

Elikadurari dagokionez, dieta berezirik jarraitzen duzu?

Ez, beno, etxean osasuntsu jateko ohitura dugu, eta gozoak eta goxokiak murrizten saiatzen gara, baina klubetik ez dugu inongo exijentziarik.

Txapelketen aurretik, baduzu erritual edo errutinarik?

Txapelketetarako makilaje eta moñoa derrigorrak direnez, eguna hauek prestatzen hasten dut. Ondoren, ekipazioa (mailloa, punterak...) eta motxila prestatzen ditut, eta behin abiatzen garenean, autoan, Cicatriz musika taldearen "Ésto saldrá bien" abestia entzun eta abesten dugu. Horrela hasi ginen duela bi urte, eta horrela jarraitzen dugu.

Kontatu nahi duzun anekdota edo bitxikeriarik ba al duzu?

Bai. Esan bezala, Espainiako Txapelketara entrenatzaileekin joan ginen. Txapelketa baino egun bat lehenago iritsi ginen. Hurrengo egunean, hotelean esnatu, gosalduta eta guztia prestatu ondoren, taxia hartzeko jaitxi ginenean, hiri osoan taxi liberrik ez zela jakin genuen. Denboraz justu genbiltzan, talde bakoitzak berotzeko, tapiza probatzeko eta entseguak egiteko denbora ze-

haztuta eta mugatuta baitu, eta gainera, estadioa nahiko urrun zegoen. Azkenean, gurasoei deitu behar izan zieten entrenatzaileek. Guraso guztiak estadioko sarrera erosita, barruko harmailetan zeuden jada, urduritasuna kontrolatu nahian eta gu berotzen ariko ginelakoan. Bat-batean, deia jaso zuten, eta ziztu bizian gerturatu ziren bi guraso euren autoekin gure bila; justu-justu iritsi ginen.

Eta azkenik, zein da zure hurrengo erronka edo ametsa?

Oraitxe bertan, maiatzeko Espainiako Txapelketa dut buruan. Urtarrilean hasi ginen dantza berria prestatzen; oraingoan, mazedekin egitea egokitu zaigu, eta hemendik hilabetera hasiko dugu denboraldi berria. Aurreko denboraldiko marka berdintzea zoragarria izango litzateke, baina oso zaila dela ere badakit; beraz, poliki-poliki.

Bestalde, epe luzera begira, oraingo hirugarren maila utzi eta bigarren mailara salto egitea gustatuko litzaidake, eta ondoren, lehen mailara. Tolosa C. F. taldeko beste neska talde helduago batek lortu berri du erronka hori. Beraien pausoak jarraitu nahiko nituzke.



Kultura, denetarikoa eta denotzat

Kulturako lantaldeak 2025eko kultur ekintzen galdetegi bat helarazi genizuen. Urtean zehar egin diren ekintzen balorazioa jasotzeaz gain, 2026rako proposamenak jasotzea izan da galdetegiaren helburua.





2 025eko ekintzen asebetetze mailari dagokionez honako hau baloratu da jasotako 17 erantzunetan. Galdetegi osoa <https://itsasondo.eus/zerbitzuak/kultura> lotur duzue ikusgai.

1 Oro har, ekintzak egokiak direla baloratu dute herritarrek.

Ekintzaz ekintzako balorazioa eskatu zen galdetegian eta puntuazio altuena honako ekintza hauek izan dute:


- Pantailen inguruko formazioak.
- Treba gurasoak.
- Bertso Saioa.
- Zirku tailerra.
- Tio Teroneren emanaldia.
- San Juanak.

2026ra begira, herritarrei zein kultur ekintza lehenetsiko luketen galdetuta, hau adierazi dute: **2**

Herrian zein kultur adierazpenen falta sumatzen duten galdetean herritarrek hau erantzun dute: **3**

Herrian antolatzen diren kultur ekintzak orokorrean egokiak iruditzen zaizkizu?// ¿Te parecen adecuadas las actividades culturales que se organizan en el municipio en general?


17 respuestas



2

2026ko zein ekintza kultural lehenetsi zenituzke// Para el año 2026 que actividad prioritarias


17 respuestas



3

Zein kultur adierazpen botatzen duzu faltan herrian?// ¿Qué expresión hechas de menos?

17 respuestas





Proposamen zehatzik ba ote duten galdetu zaie, eta honako ekintza proposamen hauek jaso dira:

- Trikitilariak baditugu herrian, eta polita izango litzateke euren emanaldiren bat ospetsuren batekin. Bestela bertso poteoa egin liteke.
- Zuhaitz Gurrutxagaren "Futboleroak".
- Umorezko bakarriketak.
- Esanezin (3).
- Jurgi Ekiza (2).
- Maskak taldea.
- Talde handiren bat edo abeslari ospetsuaren bat... Ruper Ordorika.
- Saxofonostaren bat.
- Bakarriketak helduentzat, musika kontzertuak nahiz eta txikiagoak izan.
- Haur antzerkia (3).

Galdetegian jasotako iritziak kontuan izanda, 2026ko kultur agenda osatzeari ekin genion. Balorazio ona jasotako ekintzak errepikatu eta proposamen berriak aintzat hartu nahi izan dira. Horrela bada, momentuz, 2026ko kultur agendan izango ditugun ekintzak hauek dira:

Martxo

7: Emakumeen Eguneko emanaldia: Pantxika Lamur, "Beroa dago... eta gu gara!".

20: Komiki tailerra, Pernan Goñi.

19-29: KORRIKA.

Apirila

17: Ipuin kontaketa, Betzaida Urtaza.

Odol emaileak.

Maiatza

2-4: Urkiko festak.

8: Udaberriko Azoka eta Eraitsi Kale Antzerki, Goitibera konpainia.

22: Gurpilen gainean azoka, Ongizate Batzordea.

23-24 : Urkiko asteburua, Izar bidea ekintza, Aranzadi.

29: Ianire Aranzabe eta Jurgi Ekizaren kontzertua.

Ekaina

5: Bertso saioa: Xabat Illarregi, Onintza Enbeita, Aitor Etxebarriazarraga, Sarai Robles eta Gai-jartzailea Saroi Jauregi.

6: Eliz atariko kontzertuak.

19: Garagardo azoka eta Ines Osinagaren emanaldia, Arbel-Aitz Elkarte.

23: San Juanak.

Harrera eguna. Ongizate Batzordea.

Uztaila

4: Mendi ibilaldia.

Iraila

12-14: Urkiko festak.

17,18, 19, 20: Festak.

25: Pintxo potea.

Urria

2,9,16: Pintxo potea.

24-25: Urkiko asteburua.

31: Gau beltza, Guraso Elkarte.

Odol emaileak .

Azaroa

6: "Lazos" liburu aurkezpena, Betzaida Urtaza.

14/ 21: Gaztaina jana, Guraso Elkarte.

20/27 : Kantu afaria, Arbel Aitz Elkarte.

27: Euskal jantzi azoka, Ongizate Batzordea.

25: Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna.

Abendua

3: Euskararen eguna.

23: Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Guraso Elkarte.



2025eko ekainean egindako Harrera Eguna. Urtean herrira bizitzera etorritako herritarrei egiten zaien ekitaldi xumea da Harrera Eguna.

Egin zaitez Harrerakide

Herrira bizitzera datozen bizilagun berriei aharik eta harrea egokiena eskaintzeko sortu da harrerakide.

Itsasondo beti izan da harrera herria. Herritar orok dute euren lekua gurean. Etorri berrientzat, baina, ez dira errazak izaten lehen egunak: leku berrira egokitu, herria eta herritarrak ezagutu, herriko bizimoduan lekutxo bat egin... Lehen momentu eta hasiera horiek ahalik eta eramangarrienak, goxoenak eta errazenak izan daitezen, ekimen berri bat jarri du abian Ongizate batzordeak: Harrera-kide sarea.

Sare horren helburuak izango dira, besteak beste, etortzen diren bizilagun berriei ahalik eta harrera egokiena eskaintzea, herriko baliabideak, azpiegiturak eta funtzionamendua ezagutaraztea eta harreman goxo eta informala egi-

tea, baita euskarara, euskal kulturara eta herriko ohitura eta ospakizunera gerturatzea ere. Azken finean, etorri berriak eroso eta etxean sentitzea da asmoa.

Horretarako, herritarren laguntza eta babes behar da; herritar sare sendo bat osatzea ezinbestekoa da. Bizilagun berriei harrera egiteko prest bazaude, egin zaitez Harrerakide. Eman izena udaletxean bertan edo idatzi mezu bat Ongizate batzordera: ongizate@itsasondo.eus. Behin boluntarioen taldea osatuta, aurkezpen bilera bat egingo da, ekimenaren nondik norakoak azaltzeko.

Zure laguntza beharrezkoa da, eta herrira datozenek eskertuko dute. Animatu!

Hemeroteka



GAU BELTZA (urriak 31)

Aurten ere beldurra pasa dugu. Herriko haur, gazte eta ez hain gazteak itxuraldatu eta arimen gaeko protagonista bihurtu dira. Herriko txokoetatik igaroz kontakizuna garatzen joan da, eta, nola ez, sustoak nonahi egon dira.



ETXEBIZITZEN IRISGARRITASUNAREN INGURUKO BATZARRA (azaroak 4)

Herrian hainbat etxebizitzek izan ditzaketen irisgarritasun arazoak aztertu eta horiei irtenbide egokiena emateko asmoz herritarrekin batzarra egin da.



TAILA TAILERRA GOTZON IZKIERDOREKIN (azaroak 12)

Eskolako haurrekin gaztelekuan egin ditu Gozton Izkierdok taila tailerrak. Urkipe eskolak sustatuta, belaunaldien arteko harremanak eta ikaspenak partekatzeko egindako ekintza izan da.



LIBURU AZOKA (azaroak 21)

Kantu afaria dela-eta jende gehiago egongo zela jakitun, Ongizate batzordekoek liburuak trukatzeko azoka egiteko probestu dute.



KANTU AFARIA (azaroak 21)

Kuxkuxtuko lagunek, betiko moduan, afalaurre eta afaloste bikaina eskaini digute. Aurten ez dugu, ohi bezala, Ikerrek prestaturiko afaria izan, baina, tira, moldatu gara. Sustoaren ondoren, gainera, Iker afarian egon ahal izan da, beraz, bejondeizula!



EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA (azaroak 25)

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean herritarrak plazara atera eta ozen adierazi nahi izan dute beharrezkoa dela emakumeenganako edozein indarkeria mota deuseztatzea.



GAZTAIN JANA (azaroak 29)

Guraso Elkarteak antolatuta, aurten ere, gaztainak jateko aukera izan dugu. Jan-edanarekin batera giro aparta izan da.



OLENTZERO ETA MARIDOMINGI (abenduak 24)

Ohiko bisita izan dugu. Umeen pozgarri, herriko kaleetan ibili dira Olentzero eta Maridomingi. Hamaiketako goxoa ere egin dugu, eta hurrengo urtera arte agurtu ditugu.

liburu gomendia

**BIZITZA BATEN TXATALAK****Andre bat lurrari emana.**

Liburu hau Onintza Enbeitak idatzia da.

Hamabi gaineko eta hamabi azpiko izan ziren Feli Madariagaren arrea. Haiek hartuta joan zen Muxikako Igertu baserrira. Hortik aurrera bizitza ederra eraiki zuten Julian Gabikaetxebarria senarrarekin eta bien artean izan zituzten hiru alabekin.

Laurogeita hamar urtetik gora, oraindik ere hezurrek uzten diotenean jorran egitera joaten da ortura. Baserriko lana gogorra omen da, baina lurra bizitzeko behar izan duen guztia eman dio Feliri. Gure amonen, birramonen edo gure amen bizimodua kontatzen da hemen andre baten ahotan. Baserrira bere horretan, erromantizismorik gabe.

Cuando ellos se van
Julia Navarro



El novio
Freida Macfadden



Animaliei buruzko 500 galdera
Susaeata



Muga hautesien hegalak
Ernesto Prat



Bakea, bakea
Xabier Montoia



Jai alai
Gaizka Arostegi



Dena zulo bera zen
Eider Rodriguez



Las buenas intenciones
Victor Del Arbol



La chica del lago
Mikel Santiago



Sagu bildumagilea
Leire Salaberria



Errezeta

Potxak nafar erara

Potxak Nafarroan jatorria duten lekaleak dira. Mota horretako babarrun zuriak oso preziatuak dira gastronomian, zapore fina eta krematsua dutelako. Era askotara landuak eta kontsumituak izan dira, eta haien berezitasun nagusia da potxak oraindik heldu gabe uzten direla. Uda hasieran erein ohi dira, eta, eremuaren eta potxa motaren arabera, uztailean edo abuztuaren edo irailaren amaieran biltzen dira.

Izan ere, potxak, lekale gehienak ez bezala, fresko kontsumitzen dira, landare mota horietan hain ohikoa den lehortze eta deshidratazio fasetik igaro gabe. Horregatik, kasu askotan, barazkiak bailira bezala lantzen dira sukaldean, ohiko lekaleak baino gehiago.

OSAGAIK

- Potxak 500gr
- 2 piper berde
- Tomate 1
- 2 koilaratxo piper txorizeroaren mamia
- 3 baratxuri ale
- Tipula 1
- Gatza
- Olioa





Euskara txukuntzen


EUSKARA MAKARRONIKOA

Arazo puntualak sortu dira.
Gure asmoa planteatu diegu.
Kontutan hartu beharko degu.

EUSKARA TXUKUNA

Unean uneko arazoak sortu dira.
Gure asmoa adierazi/azaldu diegu.
Kontutan izan beharko degu.

AI ENE!!!!



EUSKALDUNEN AURKAKO ERASOAK

Telefonikak barkamena eskatu du bezero bati langile batek ez dakit euskara eta ez dut jakin nahi” erantzun eta gero.

Azaroaren 13an gertatu zen Bilbon, Telefonikak Buenos Aires kalean duen dendan. Harreran bezeroa euskaraz artatu zuten, eta ondoren bigarren langile batengana bideratu zuten. Hari galdetu zion ea euskaraz bazekien, eta orduan jaso zuen erantzuna: “Ez dakit euskara eta ez dut jakin nahi”. Bezeroak ARGIAri adierazi dionez, “amorru bizian” jarri zen erantzuna entzunda. Ez zion ezer esan langileari eta behar zuen informazioa gaztelaniaz jasota, alde egin zuen.

Hainbat egunetara, bezeroak kexa jarri zuen Hizkuntz Eskubideen Behatokia. ARGIAk gertatutakoaren inguruko erantzuna eskatu dio Telefoninari. Espainiar Estatuko iparralderako duten komunikazio arduradunak adierazi duenez, ez dute lortu bezeroa zein langilek artatu zuen jakitea, etxe barruan galdezka ibili arren: “Denda handia da, langile asko daude, txandak...”. ARGIAren eskaria jaso ondoren, Hizkuntz Eskubideen Behatokiari gertakari horri buruzko informazioa eskatu ziotela azaldu du.

Komunikazio arduradunak “zorigaizto itzeleko” eta “mespretxuzko” iruzkintzat jo du langilearen erantzuna eta errepikatu du Telefonikaren ildoarekin ez duela bat egiten: “Ez dugu ulertzen eta ez dugu partekatzen”. Eta hau gehitu du: “Galdetzen badizute euskaraz ba al dakizun, eta ez badakizu, barkamena eskatu behar da eta esan, ‘oxala jakingo banu’. Erantzuna ez da: ‘Ez dakit euskara eta ez dut jakin nahi’. Berak euskara ez dakielako, kazetariari barkamena eskatu dio, euskaraz hitz batzuk eginda.

Gogorarazi du bezeroari, lehendabizi, langile euskaldun batek egin ziola harrera eta bigarrenak eman ziola erantzun hori. Eta gehitu du dendaren neurriaren arabera, langile euskaldun batek edo bik egon behar dutela bezeroen behar linguistikoak erantzuteko.

ARGIAk komunikazio arduradunari galdetu dio ea bezeroak kexa jarri izan balu zein izango zen prozedura. Aitortu du giza baliabideen ikuspegitik ez dakiela zein den prozedura, baina “logikak esaten du edozein gorabehera egon eta gero, langileei jakinarazi egiten zaiela edo formazioa ematen zaiela horren inguruan. Hau ez litzateke salbuespena izango, seguru nago”.

Bezeroak ez zuen kexarik jarri Telefonican. Arduradunak esan du bezeroak momentuan kexa jartzea “bikaina” izango zela, “dendako managerra agertu zitekeela eta minutu batean konpondu afera”. Dena den, ulertzen du bezeroak momentuan ezer ez esatea, haserre egotea, eta alde egitea.

ERREZETA

- Baratzuri aleak eta tipula zuritu. Piper berdea garbitu, ondoren zati txikitik txikitu. Tomatea garbitu eta lau zati egin, handia izanez gero, zati gehiagotan.
- Kazola batean olio sutan jarriko dugu. Baratzuri txikitua gehitu eta dantzan hasten denean, tipula eta piperra, gatz ez ondu, eta su motelean erregosi bi minutuz. Ondoren tomatea gaineratu eta piper txorizeroaren mamia, irabiatu eta beste bi minutuz erregosi. Ondoren potxak sartu eta ur hotzez estali, zentimetro pare bat gainetik utzi.
- Suaren indarra igo, ura borborka hasi arte, suaren intentsitatea jaitsi, uretan borborka mantenduz, baina irakiten utzi gabe, potxak apurtu ez daitezela. 30 minutuz egosi. Tomateak, piperrak eta potxa batzuk atera salda pixka batekin, irabiagailuan birrindu eta, ondoren, saldan jarri, tratuago gera dadin. Amaitzeko, mugitu, probatu eta gatz ez ondu dagoen probatuko dugu. Ondoren prest dago platera mahaira eramateko.

agenda

MARTXOA

20: Komiki tailerra. 16:30ean Bizi Nahi elkartean.

27: Zirku tailerra. 16:30ean, frontoian.

28: KORRIKA.

APIRILA

17: Ipuin kontaketa, Betzaida Urtaza. 17:30ean, liburute-gian

24: Treba nerabeak "Ongizate emozionala" 17:30ean, gaztelekuan.

Odol emaileak.

MAIATZA

2-4: Urkiko festak

8: Udaberriko Azoka (17:00) eta Eraitsi Kale Antzerkia (20:00) frontoian.

22: Gurpilen gainean azoka, Ongizate Batzordea.

23-24: Urkiko asteburua, Izar bidea ekintza, Aranzadi.

29: Ianire Aranzabe eta Jurgi Ekizaren kontzertua.

EKAINA

5: Bertso saioa: Xabat Illarregi, Onintza Enbeita, Aitor Etxebarriazarraga, Sarai Robles. Gai-jartzailea. Saroi Jauregi.

6: Eliz atariko kontzertuak.

19: Garagardo azoka eta Ines Osinagaren emanaldia.

23: San Juanak.

Harrera eguna, Ongizate Batzordea.

UZTAILA

4: Mendi ibilaldia

Ekitaldi horiez gain, asteazkenetan, 16:30etik aurrera, plazan kale ekintza izango da eta, ostiraletan, 17:00etatik 20:00etara gaztelekuan ere hainbat ekintza egingo dira. Animatu eta parte hartu.

Ekintza hauen inguruko informazio zehatza www.itsasondo/agenda.eus atalean topatuko duzue eta <https://t.me/itsasondo> telegram kanalean zabalduko da.

2026rako kultur ekintzak prestatzen dabil Kultura lantaldea. Proposamenik bazenu, jo ezazu kideren batengana edo parte hartu lantaldean!

telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz elkartea	943 881339
Ibalur	722 366 173
Arrastoa Botika	943 882148
Medikua	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna	943 880012
Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	678 035788

Ala honetan parte hartu dutenak:

Ainhoa Barandiaran
Amaia Ugalde
Aritz Insausti
Danel Etxeberria
Hitzar komunitatea
Iñaki Aizpuru
Iturritxiki guraso elkartea
Maite Lasa
Mikel Ormazabal
Nagore Etxeberria
Nerea Manzisidor
Ongizate batzordea
Unai Aldasoro
Urkipte eskola
Urkipte Haur eskola

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Heritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:

SS-297-2010

ISSN:

2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
UZTAILEAN
IZANGO DUZUTELA ETXEAN.**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Berreskuratze, Eraldaketa
eta Erresilientzia Plana



Europar Batasunak
finantzatua

NextGenerationEU



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA